

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Euskarabideak 60.000 euroko diru-laguntza emango du eremu pribatuko lantokietan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko

Lehen aldia da mota horretako laguntzak ematen direla, hasiera batean enpresen irudiarekin eta komunikazioarekin zerikusia duten alderdietara bakarrik zirelako

Osteguna, 2017.eko ekainak 15

Euskarabideak Foru Komunitateko eremu pribatuko lantokietan 2017. urtean euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko diru-laguntzen deialdi bat atera du. Horrela, 60.000 euroko laguntza izango da.

Lehen aldia da mota horretako diru-laguntzak ematen direla, eta bere helburua enpresan pixkanaka euskara sartzea da. Hasiera batean, irudiarekin eta komunikazioarekin zerikusia duten alderdietara mugatzen zen, alderdi bisualenetara eta lehen aldiz ukitzen direnietara: kartelak eta errotuluak, harrerako elementuak eta idatzizko komunikazioa, irudi korporatiboa, web-orriaren hizkuntza-egokitzapena edota jarduera profesionalaren inguruko prestakuntza.

Zehazki, eta joan den ekainaren 12an [NAO](#)n argitaratu zen deialdiaren [oinarriek](#) ezartzen dutenaren arabera, laguntzak esparru hauetarako dira nagusiki: kanpoko, barruko eta ibilgailuetako errotuluak egokitzea; irudi korporatiboa gutun-azaletan; bisita-txartelak; idazpuruak; erakundearen zigiluak: poltsak...; web-orriaren hizkuntza-egokitzapena; telefonozko eta zuzeneko harrera (mezuak, agurrak); idatzizko jakinarazpenetarako eskatutako itzulpenak (gutunak, mezu elektronikoak, sustapenetarako mezu elektronikoak eta euskarazko hizkuntza-prestakuntza.

Hiru diru-laguntza eta laguntza-kopuru daude, lantokiaren arabera: elkargo profesionalak, 10.000 euroko laguntza; eremu pribatuko lantokiak, 15 langile baino gehiago dituztenak, 30.000 euro arte, eta eremu pribatuko lantokiak, gehienez, 15 langile dituztenak, 20.000 euro arte.

2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko urriaren 31 arteko jarduerak izango dute diruz laguntzeko aukera, eta laguntza horiek eskatzeko epea uztailaren 3an amaituko da.

640.000 euro helduei euskara erakusteko

Horrez gain, Euskarabideak helduendako euskararen irakaskuntza sustatzen duten entitateendako laguntzen deialdia ere ireki du, 2017ko urtariletik irailera bitartean egindako jardueretarako. Laguntza 640.000 eurokoa izango da.

Oinarriak ekainaren 6ko [NAO](#)n argitaratu ziren, eta lau irakaskuntza modalitate barne hartzen dira, euskaltegia, gau-eskolan eta

bestelakoetan ematen direnak:

a) Aurrez aurreko irakaskuntzako talde arruntak: astean gutxienez 4 irakastordu izaten dituzte, eta ikasturte osoa kontuan hartuta, 100 ordu gutxienez.

b) Barnetegiak: ikastaro bakoitzak gutxienez ere 70 ordu izan behar ditu, eta haietarik gutxienez ere 60 irakastordu.

c) Baliabide telematikoen bidezko irakaskuntza: bakoitzak gutxienez ere 120 lanordu izan behar ditu, eta haietarik gutxienez ere 15 ordu mintzapraktikakoak (astean 6 ordu lan telematikoan eta ordu 1 mintzapraktikan).

d) Euskararen irakaskuntza espezifikoa eta dauden eskaerei egokitua.

Diru-laguntza eskatzeko epea datorren ekainaren 21ean amaituko da, eta informazio guztia www.navarra.es web-orriaren zerbitzuen katalogoari dagokion [fitxan](#) kontsulta daiteke.